

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/2015 ikasturtea

HEZKUNTZA-PRAKTIKA ALTERNATIBOEN AZTERKETA ETA HEDAPENA: Norvegiako esperientzia


Egilea: San Martín Frutos, María

Zuzendaria: Tejada Garitano, Eneko

Leioan, 2015eko ekainaren 4an

© 2015, María San Martín

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA



EGILEAREN ONIRITZIA



AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
1. Hastapena.....	5
2. Egoeraren azterketa.....	5
3. Proiektuaren justifikazioa eta deskribapen orokorra.....	6
4. Oinarriztapen teorikoa.....	7
4. 1. Hezkuntza berrikuntza.....	7
4. 2. Bodøko ekintza pedagogiko berritzailearen jatorria.....	7
5. Proiektuaren diseinua.....	10
5. 1. Proiektua sortzeko oinarria.....	10
5. 2. Proiektuaren asmoak.....	11
5. 3. Proiektua garatzeko faseak.....	13
5. 4. Proiektuaren emaitzak.....	15
5. 4. 1. Bodøko hezkuntza praktika alternatiboen azterketa eta sailkapena....	15
5. 4. 2. Euskal eskola batera bideratutako proposamen metodologikoa.....	21
5. 4. 3. Web orrialdea: Norberriketan.....	22
6. Proiektuaren ebaluazioa.....	22
6. 1. Ondorioak.....	22
6. 2. Iradokizunak.....	23
7. Erreferentzia bibliografikoak.....	24
 ERANSKINAK	
1. eranskina. Egunerokoak.....	2
2. eranskina. Elkarrizketak.....	21
3. eranskina. Proposamena.....	45
4. eranskina. Gurasoentzako ebaluazio idatzia.....	52

HEZKUNTZA-PRAKTIKA ALTERNATIBOEN AZTERKETA ETA HEDAPENA: Norvegiako esperientzia

María San Martín Frutos

UPV/EHU

Lan honen helburua Norvegiako haur eskola baten hezkuntza-praktiken proiektu esku-hartzailea egitea izan da. Horretarako, euren metodologia alternatiboaren ezaugarriak aztertu dira, hezkuntzaren alorrean egin litezkeen ekarpenak hedatzeko. Proiektua garatzeko prozesuan, lehenik eta behin, behaketa parte-hartzailea eta jarraia egin da; ondoren, zentroko hainbat profesional desberdinak elkarrizketatu dira; eta azkenik, esku-hartze berritzaile horiengan eragina duten korrante pedagogikoen azterketa sakona gauzatu da. Burututako lanaren emaitza aztertutako hezkuntza praktiken sintesia web orrialde batean jasotzea izan da, horrela, hezkuntza komunitatea erabili ahal izateko eta aberasteko. Era berean, Norvegiako ekintza pedagogikoa eredu hartuta, euskal eskola batera bideratutako proposamen metodologikoa diseinatu da.

Haur Hezkuntza, Hezkuntza Berrikuntza, Norvegia, Hezkuntza praktikak, Esku-hartze didaktiko alternatiboak.

El propósito de este trabajo ha sido elaborar un proyecto de intervención sobre las prácticas educativas de un centro infantil noruego. Para ello, se han estudiado las características de su metodología alternativa, derivando así, conclusiones sobre sus posibles aportes al medio educativo. Durante el desarrollo del proyecto, se han realizado una observación participativa y continua, varias entrevistas a los diferentes profesionales del centro y finalmente, una profunda exploración sobre las influencias pedagógicas en las que inspiran sus intervenciones innovadoras. El resultado del trabajo realizado ha sido recoger las prácticas educativas estudiadas, a modo de síntesis, en una página web, con el fin de poner a disposición y enriquecer a la comunidad educativa. A su vez, teniendo como referente la acción pedagógica noruega, se ha diseñado una propuesta metodológica para una escuela vasca.

Educación Infantil, Innovación Educativa, Noruega, Prácticas Educativas, Intervenciones didácticas alternativas.

The aim of this research has been to make an interventionist project about the educational practices of a Norwegian kindergarten. The characteristics of their alternative methodology have been studied in order to expand the conclusions of its possible contribution to the educational field. During the development of the project, the following tasks have been done: firstly, a participative and continuous observation; then, several interviews to the different professionals of the school; and finally, a deep research on their pedagogical influences. The result of the research has been to synthesize the studied educational practices on a website, putting them at educational community's disposal and making it richer. At the same time, having as a reference the Norwegian pedagogy, a methodological proposal for a Basque school has been designed.

Childhood Education, Educational Innovation, Norway, Educational practices, Alternative didactic interventions.

Sarrera

*Haurra ehunez egina dago.
Haurrak ehun hizkuntza ditu
ehun esku, ehun pentsamendu
ehun pentsatzeko era, jolasteko eta hitz egiteko
ehun beti ehun
entzuteko era, harritzeko eta maitatzeko
ehun poztasun, abesteko eta ulertzeko
ehun mundu aurkitzeko
ehun mundu sortzeko
ehun mundu amesteko.*

*Haurrak ehun hizkuntza ditu (eta gainera ehun ehun ehun)
baina laurogeita hemeretzi lapurtzen dizkiote.
Eskolak eta kulturak burua gorputzetik bereizten dizkiote.
Esaten diote:
pentsatzeko eskurik gabe, jarduteko bururik gabe
entzuteko hitz egin gabe, ulertzeko alaitasunik gabe
maitatu eta harritzeko, Pazkotan eta Gabonetan soilik.*

*Esaten diote:
jadanik existitzen den mundua aurkitzeko
eta ehunetik laurogeita hemeretzi lapurtzen dizkiote.*

*Esaten diote:
jokua eta lana, errealitatea eta fantasia
zientzia eta irudimena, zerua eta lurra
arrazoia eta ametsa, ez doazela elkarrekin.
Eta esaten diote ehun ez dela existitzen.*

Haurrak dio:

“Hala ere, ehun existitzen da”.

(Malaguzzi in Edwards, Gandini & Forman, 1993:2) (Moldatua)

Malaguzziren poesia honek proiektuari hasiera ematen dio. Bertsoek, batetik, gaur egungo eskola sistemaren gabeziak eta mugak aipatzen dituzte eta, bestetik, haurren gaitasun anitzak. Olerkiak dioenez, eskolak hitz egiteko, sortzeko, amesteko, jolasteko eta esperimintatzeko aukerak murriztu eta lapurtzen ditu. Horrez gain, egilearen hitzak interpretatuz, gizartean aurrera egin ahal izateko eskolaren eredu bakarra jarraitzea besterik ez dagoela esan daiteke (Malaguzzi in Edwards, Gandini & Forman, 1993).

Beraz, nola lor daiteke eskolak inguratzen duen harresia irudimen, berrikuntza, esperimintazio, kritika eta askatasunera irekitzea? Nola lor daiteke bakea, maitasuna eta elkarkidetzaren sortarazten duen eskola? Nola eraiki haurren “ehun hizkuntzak” (Malaguzzi in Edwards, Gandini & Forman, 1993:2) asetzen dituen bizitzarako

erakundea? Ez dago eskola ideala ahalbidetzen duen formula magikorik, baina proiektu berritzaileak aldaketarako bidearen lehenengo pausoa izan daitezke.

Hori horrela izanik, proiektu esku-hartzaile honetan, aurreko galderei erantzun posible bat ematen zaie. Horretarako, Norvegia iparraldeko haur eskola batean burututako hezkuntza-praktika alternatiboak aztertu eta erabiltzen duten metodologiaren oinarri pedagogikoetan sakondu da. Horrez gain, euren esku-hartze berritzaileak web orrialde batean jaso eta eskura jarri dira, modu honetan, gaur egungo eta etorkizuneko euskal hezkuntza sistemaren kalitatea aberasteko.

Nik horretan sinisten dut eta horretarako bidean gaude, izan ere, Malaguzziren poesiaren haurrak dioen antzera, “ehun existitzen da...haurrak ehun hizkuntza ditu (eta gainera ehun, ehun, ehun)” (Malaguzzi in Edwards, Gandini & Forman, 1993:2).

1. Hastapena

Arrazoitzeko gai naizenetik, curriculumean eta gaitasunetan zorrozki oinarritutako eskola-testuinguruetan hezi eta ebaluatua izan naiz. Inoiz ez dira nire benetako interesak kontuan hartu eta gutxitan izan dira ia ikasten nuena gustokoa neukan galdetu dizkidatenak. Beraz, oro har, ikasle pasibotzat jo naute.

Gaur egunean, zorionez, irakaskuntza beste norabide bat hartzen doala dirudi. Haurren interes eta erritmoak gehiago errespetatzen dira eta eurak dira irakaskuntzaren ardatz (Van Dijk, 2013), ikasten dituzten diziplinak bigarren plano batean daudelarik. Irakaskuntzaren aldaketa horren partaide izateko, magisteritzan sartu nintzen duela lau urte eta, ordutik, metodologia berritzaile eta alternatiboen zale amorratua bihurtu naiz.

2014. urteko udaberrian, Norvegiako iparraldeko Bodø hirian atzerriko minorra egiteko aukera plazaratu zitzaidan *Erasmus+* programaren bidez. Dударik gabe, aukeraz probetxatu eta hezkuntza arrakastatsuen zonaldera (OECD, 1999) joan nintzen bost hilabetez. Nire jakinminaz gidatuta, auzoko haur eskola batean bolondres hasi nintzen lanean. Ez zen erraza izan. Hainbat agiri eta baimen lortu behar izan nuen, baina zalantzarik gabe, merezitako esfortsua izan zen. Eskandinabiako ekintza pedagogikoaz gozatzeko esperientzia paregabea bizitzeaz gain, bestelako hezkuntza bat posiblea den egiaztatu nuen.

2. Egoeraren azterketa

Aurrekoa poema eta esperientzi pertsonala ikusi eta gero, beharbada, gure herrialdeko Haur Hezkuntza sistemak aldaketa bat behar du XXI. mendeko gizarte

garaikideari erantzuteko. Gaur egungo eskolek pairatzen duten hutsuneari erantzuteko, ikaste esanguratsua eta ikasleen parte-hartze aktiboa bermatzen duen erakunde irekia, anitza eta globala lortzeko beharra dago.

Benetan behar duguna pentsamoldearen aldaketa bat da. Ez dugu behar informazioa transmititzen duen eskola bat soilik, aktiboki eraikitzen laguntzen duen eskola ere bai. Eskola bat non ikastea, pentsatzea bihurtzen den, pentsatze hori irakaste-ikaste prozesuaren egiazko protagonista izanik. (Garrido eta Grau, 2001:13)

Honako eskola lortzea ez da utopia bat. Izan ere, horrelako printzipioak jarraitzen dituzten metodologiak egon badaude. Horren adibide dira lan honetan aztertu diren Bodøko haur eskolako hezkuntza-praktika berritzaile eta alternatiboak.

3. Proiektuaren justifikazioa eta deskribapen orokorra

Egoeraren azterketan azaldutako gabeziari erantzun posible bat emateko, proiektu esku-hartzaile hau garatu da. Lan honen bidez, Norvegiako eskola batean burutzen dituzten hezkuntza-praktika alternatibo arrakastatsuak aztertu eta sailkatu dira, hezkuntza komunitatera modu eraginkor batean hedatzeko.

Bodøko ekintza pedagogikoaren azterketa gauzatzeko, behaketa parte-hartzaile eta jarraia lan-tresnarik garrantzitsuena bilakatu da. Bestalde, egunerokotasunean jasotako informazio hori egiaztatu nahian, bertako profesional desberdinekin elkarrizketak egin dira. Azkenik, burutzen dituzten hezkuntza-praktiken analisisan sakontzeko, oinarritapen teorikoa finkatu da. Horren bidez, eredutzat dituzten korrante pedagogikoak identifikatu dira, esku-hartze batzuk propioak dituzten arren, askok *Reggio Emilia*, *Waldorf*, *Pikler-Lòczy*, *Montessori*, *HighScope* eta *Acouturierren* planteamenduak baitituzte oinarri.

Behin informazio guztia aztertuta, sailkatuta eta identifikatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eskola baten testuingururako espresuki sorturiko proposamen bat diseinatu da, hura inplementatzeko asmoz. Ondoren, egindako lan guztia modu grafikoan laburbiltzeko eta, batez ere, hezkuntza komunitatearen eskura jartzeko, web orrialde bat sortu da.

Azkenik, prozesu osoaren balorazioa egiteko eta ondorio garrantzitsuenak partekatzeko, aztertutako metodologia nordikoaren, sortutako proposamenaren, eta sarean eratutako espazio publikoaren hausnarketa sakona egin da. Gainera, zenbait proposamen eta iradokizun plazaratu dira, oraingo eta geroko baliozkotasuna azpimarratzeko eta etorkizunean proiektuarekin lan egiten jarraitzeko.

4. Proiektuaren oinarritzapen teorikoa

Norvegiako ekintza pedagogikoaz hitz egiten denean, berrikuntzaren adiera ezin daiteke ahaztu. Hori dela eta, ezinbestekoa da berrikuntza kontzeptua definitzea, baita hezkuntzaren alorrean daukan esanahia ezagutzea eta ulertzea ere.

4. 1. Hezkuntza berrikuntza

“Berrikuntzak halabeharrez arazo batean du jatorria. Kutsu positiboa dauka eta sormena eta aldaketarekin lotuta dago” (Pascual, 1988:86). Hala ere, berrikuntza ikuspegi ezberdinetatik aztertu daitekeen fenomeno da. Proiektu honetan, hezkuntzaren alorrean daukan esanahiari erreparatzen zaio.

Azkenengo hamarkadetan, hezkuntzaren esparruko hainbat adituk hezkuntza berrikuntzari buruz euren ekarpena eman dute. Hots, Imbernonentzako (1996:64) “hezkuntza berrikuntza praktikan ematen diren arazoiei irtenbidea emateko kolektiboki proposatu eta aurrera eramandako ideia eta ekarpen berrien ikerketa prozesua da”. Honek hezkuntzaren testuinguruan praktika instituzionaletan aldaketak eragingo ditu.

Cañal de Leonek (2002), ordea, hezkuntza berrikuntza prozesu bezala ulertzen du, non helburuak indarrean dagoen errealitatea aldatzea izan behar duen. Autore honek, ikasgeletako dinamika eta ikaste-irakaste prozesuaren behaketa sakona egitea ezinbestekoa izan behar dela dio.

Aurreko ideiak uztartuz, berrikuntza hezkuntza-praktikak hobetzeko nahita egindako prozesu kolektiboa dela esan daiteke. Hori horrela izanik, behatutako haur eskola nordikoan egiten duten ekintza pedagogikoa guztiz berritzailea izango litzateke.

4. 2. Bodøko ekintza pedagogiko berritzailearen jatorria

Bodøko haur eskolan burutzen dituzten hezkuntza praktika ugari propioak dira, hau da, euren testuingururako espresuki sortuak izan dira. Hala ere, bertan behatutako esku-hartze ugariak beste metodologia batzuetan dute jatorria. Are gehiago, eredu dituzten pedagogia askok urteak daramatzate funtzionatzen, ez bakarrik Norvegian, baizik eta mundu osoan zehar. Horren adibide, *Reggio Emilia* eta *Waldorf pedagogiak* izan daitezke, baita *Pikler-Loczy*, *Montessori*, *HighScope* eta *Acouturierren* ikuspuntuak ere.

Hortaz, hona hemen planteamendu horiek indetifikatu eta sailkatu eta gero, Bodøko haur eskolarekin amankomunean dituzten nolakotasun bereizgarrienak.

Reggio Emiliaren ikuspegia II.Mundu gerraren ostean, Italian, izen bereko herrialdean, jaiotzen den pedagogia berritzaile alternatiboa da. Loris Malaguzzi irakaslea izan zen proiektuaren sustatzailea. Hori dela eta, pedagogia honen sortzailetzat hartzen da (Hik Hasi, 2007). Honako planteamendua Norvegiako haur eskolaren inspirazio iturririk nagusia da, izan ere, euren ikuspuntu filosofiko eta praktikoarekin bat dator.

Bodøko zentroa, Reggio Emiliako haur-eskolak bezala, irekia da, non komunitatearen (unibertsitatearen, auzokideen, ikasle ohien eta bereziki, familien) eguneroko parte-hartzea funtsezkoa den. Haurra abiapuntutzat hartzen da eta esperimentazio eta sormenarekin harreman estua dago (Reggio Emiliako haur-eskolak, 1995).

Norvegiako zentroaren antzera, proiektuetan lan egiten da, eta ez programazioetan. “Programazioa aurrez zehazten da, haurrak lortu behar dituen helburu eta horiek gauzatzeko egin behar dituen ekintzen bitartez; proiektua, aldiz, zehaztugabea da, proiektuak edo haurraren eraikuntza eta ikasketa prozesuak nola garatuko diren aurretiaz jakitea ezinezkoa da” (Hik Hasi, 2007:51). Beraz, modu globalizatuan ikasten da. Beste era batera esanda, “haurraren ehun hizkuntzak” (Malaguzzi in Edwards, Gandini & Forman,1993:2) artikulatzen dira, diziplinen arteko bereizketarik egin gabe.

Hezitzaileen eta zentroko profesional ezberdinen prestakuntza eta elkarlanari ematen dioten garrantzia ere nabarmentzekoa da (Edwards, Gandini, eta Forman,1993). Bodø horren adibide da, eskolan lan egiten duten langile guztiak hezitzaileetzat hartzen baitira eta, hurrekin batera, egunerotasuneko zereginetan parte hartzen baitute.

Norvegian behatutako hezkuntza praktiken artean, beste aurrekari nagusi bat antzeman daiteke: *Waldorf pedagogia*. Horren aitzindaria, Austriako Rudolf Steiner filosofo eta zientzialaria da. Pedagogia hori XIX. mendearen amaieran martxan jarri zen arren, gaur egunean ere “munduan zehar asko zabaldua dagoen mugimendu sortzaile eta librea da” (Carlgren 2004:94).

Haur eskola nordikoan bezala, umearen garapen naturala da ekintza pedagogikoaren ardatz nagusia. Hau da, haurrak, kalitatezko hezitzaileen laguntzari esker, askatasunean eta malgutasunean hezten dira. Betiere, naturarekiko harreman estua etengabe presente dagoelarik. Aurreko ideiak kontuan hartuta eta pedagogia honen arabera, eskolaren zeregina “haur bakoitza pertsona bakar gisa hartu; elkarrekiko konfiantzazko harremana sortu harekin; haren gaitasunak eta potentzialitateak ikusten, hedatzen eta goستن”

uztea da (Hik Hasi, 2006:10).

Austrian jaiotako Emmi Pikler pediatria naturista *Pikler-Lòczy metodo pedagogikoaren* sortzailea da. XX. mendearen hasieran, historiako une zail batean, Hungarian aritu zen lanean. Bere pentsamoldea Lòczy umerzuztegian martxan jarri zuen arren, gaur egunera ere heldu da formazio zentro moduan (Tardos, 2010).

Emmi Piklerren ustetan, haurraren autonomia eta askatasuna metodologiaren ardatza da, horretarako esperimentazioa erabiltzen duelarik:

Berebizikoa da haurrak bere kabuz ahal bezain beste inguruaz jabetzea. Zeregin bakoitzean laguntzen badiogu, bere garapenaren alorrik garrantzitsuena ukatzen diogu. Izan ere, esperimentazio askearen bidez gauzak lortzen dituen haurrak zuzenean soluzioak eskaintzen zaizkion haurraren oso bestelako jakituria berenganatzen du. (Pikler in Kálló & Balog, 2013:2)

Horrez gain, autore honek ondokoa gehitzen du: “jolasa eta ekintza autonomoa, bereziki garrantzitsuak dira instituzio batean bizi den haurraren nortasunaren garapen osasuntsua bermatzeko” (Kálló eta Balog, 2013:9).

Beraz, Norvegiar ikusitako esku-hartze didaktikoek eta Pikler-Lòczy metodo pedagogikoak hiru ardatz nagusi komunean dituzte: umearen ziurtasun fisiko-afektiboa edo zaintza, ekintza autonomoa, eta mugimendu edo jolas librea.

Behatutako Eskandinabiako ekintza pedagogikoak bestelako planteamendu batzuekin ere antzekotasunak baditu. Italian jatorri duen Maria Montessori doktorearen *Montessori metodoa* horren adibide argia da. Metodo honek eztabaida handiak eragin zituen hezkuntzaren alorrean XX. mendearen hasieran, izan ere, Montessorik planteamendu tradizionala guztiz aldatu zuen. Hezkuntzari ikuspuntu erabat berritzailea eman zion eta “gaur egungo eskola berriaren ezaugarriak finkatu zituen” (Aguerrondo, 2005:55).

Montessori metodoa Norvegiako haur eskolaren eredu pedagogiko nagusienetarikoa ez den arren, Bodøn erabiltzen dituzten materialekin eta, batez ere, pentsamolde orokorrarekin bat egiten du. Bi eruedetan, egiatzko diziplina bakarra haurrarena da eta, horregatik, umeen erritmoa errespetatzea ezinbesteko alderdia da. Hortaz, helduaren zeregin nagusia haurra gidatzea eta behatzea baino ez da (Standing, 1976).

HighScope planteamenduaren sortzailea David P. Weikart psikologo amerikarra izan zen. XX. mendearen amaieran, bere metodologia haur hezkuntzako geletan

implementatzen hasi zen eta, gaur egunean, hainbat lurraldeetan dirau. Besteak beste, Irlandan, Indonesian, Herbeheretan eta Mexikon.

Norvegiako eskolaren eta ekintza pedagogiko honen arteko antzekotasunak oso agerikoak ez diren arren, zenbait alderdi komun dituzte. Batetik, behaketa parte-hartzaile bidezko ebaluazio sistema jarraia eta, bestetik, ikasleen parte-hartze aktiboa sustatzeko taldekatze sistema anitzen erabilera. Bi planteameduetan taldekatze mota ezberdinak erabiltzen dira beharraren arabera, kasurako, banaka edo binakakoak, talde txikitakoak, gelen artekoak, adin berekoen taldetxoak eta ziklo osokoak (The High/Scope Curriculum series, 1992).

Bernard Acouturier, 1934an jaiotako pedagogo frantsesa, praktika psikomotrizitatearen aita izateagatik bereziki ezaguna da. Bere filosofiaren eta Bodøko haur eskolaren arteko parekotasuna Lillen eman zuen hitzaldiaren pasarte honetan islatzen da: “ongietortzea, entzutea, entzutaraztea, ulertzea, ulertaraztea, itxarotea, adiskidetzeta, proposatzea eta firmea izatea, haurren garapen-prozesuan laguntzeko gaitasun-sistema koherente baten oinarri dira” (Acouturier, 1994).

Bestalde, Norvegiako profesionalen eta Acouturierren ustetan, jolasa eta esperimentazioa ezinbestekoak dira haurren garapenean, izan ere, “haurrari heldutasun psikologikoko ibilbide bat egiten laguntzen zaio jolasetik abiatuta. Beste era batera esanda, egitearen plazeretik abiatuta” (Hik Hasi, 2004:11).

5. Proiektuaren diseinua

Oinarriztapen teorikoa kontuan hartuta, ondorengo proiektu esku-hartzailea garatu da. Honen bidez, egoeraren azterketan planteatu den pentsamoldearen aldaketaren beharrari erantzun nahi zaio. Horretarako, proiektuaren emaitzak hezkuntza komunitatearen eskura jarri dira web orrialde baten bidez eta EAEko eskola batera zuzendutako proposamen metodologiko bat diseinatu da, modu honetan, euskal hezkuntza sistema aberastuko delakoan.

5. 1. Proiektua sortzeko oinarria

Proiektua azaldu baino lehen ezinbestekoa da Norvegiako testuingurua eta behatutako ikasleen ezaugarriak deskribatzea. Izan ere, bertan bizitako esperientzia proiektua eratzeko erreferentea eta abiapuntua izan da.

Proiektuaren behaketa Norvegiako iparraldeko haur eskola batean burutu da, Bodøn, hain zuzen ere. Nordland probintziako hiriburua da eta, zirkulo polar artikoaren gainetik kokatu dauden hirien artean, biztanle gehien dituen bigarrena da, 50.090 biztanlerekin¹. II. Mundu gerran, hiria suntsituta geratu zen, baina, bere kokapen geografiko egokiak azkar berpiztea ahalbideratu dio. Naturaz guztiz inguratuta dago: mendiak, glaziarrak, uharteak, basoak, lakuak, etab. nonahi aurki daitezke. Era berean, gaur egunean, gizarte garaikideari erantzuteko baliabidez hornituta dago.

Hautatutako haur eskola itunpeko instituzio txikia, irekia, dinamikoa eta parte-hartzailea da. Norvegiako kulturaren inguruan lan handia egiten ari den zentroa da, beti ikasleen aktibotasuna, garapen pertsonala, akademikoa, zientifikoa, gizatiarra eta kirol arlokoa bultzatuz. Haur eskola 100 ikaslek eta 25 irakaslek osatzen dute. Horiez gain, eguneroko jardunetan parte-hartzen duten zenbait profesional dago; besteak beste, atezaina, garbitzailea, sukaldaria, zuzendaria eta bolondresak. Oti 6 urtera arteko hezkuntza-sistemak eskaintzen dira, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko bi talde eta bigarren zikloko hiru talde daudelarik.

Zentroa parkez eta lehio handiko eraikin bakarrez hornituta dago. Eraikin honetan, gimnasio eta aretoa, liburutegia, aparkalekua, igerilekua eta jantoki nagusia daude. Horez gain, talde bakoitzak bost ikas-eremu ditu. Ikas-eremu bakoitzean, berriz, ikasgela, sukaldea, jantokia, aldagela, komuna, tailerra eta jolasteko gela daude. Baina eraikineko azpiegitura horiek baino harrigarriagoa da zentroaren kokapen geografikoa. Unibertsitatearen auzoan dagoenez, hiriko zentroko jendetza eta zaratatik at dago, naturaz eta basoz inguratuta. Hortaz, familia gehienak unibertsitatearekin nolabaiteko harremana daukate; bertan ikasi edo lan egiten dute.

Erakundearen errealitate linguistikoari dagokionez, saio guztiak Bodøko dialektoan egiten dira. Hala ere, beste hizkuntza eta kulturen aurrean errespetu eta miresmeneko jarrera hartzen dute, ikasleen artean kultur aniztasun handia baitago (ikasleriaren %20a etorkin familietakoa da).

Proiektu honen behaketaren parte izan diren ikasleei erreparatuz, Haur Hezkuntzako bigarren ziklokoak dira, hau da, 3 urtetik 6 urtera bitarteko 19 haur (7 neska eta 12 mutil). Era berean, haurren garapen optimoa bermatzeko, formazio ezberdineko hiru hezitzaile daude gelan: pedagogoak, irakaslea eta laguntzailea. Dena den, aurretiaz aipatu den bezala, komunitatea egunerokotasunean oso presente dago.

¹ 2015/01/01eko datua, Visit Bodø (2015), <http://www.visitbodo.com/en/Brochures--etik> 2015-03-27 an berreskuratua.

Gela honetan proiektuen bidezko metodologia jarraitzen dute, hau da, haurren autonomia, behar eta interesak izan ohi dira euren ekintza pedagogikoaren abiapuntua. Curriculum malguak, helburu pertsonalizatuak, jolas libreak eta esperimentazioak ere itzelezko garrantzia daukate egunero burutzen dituzten hezkuntza-praktiketan.

Bestalde, hezitzaileentzat prozesua emaitza baino garrantzitsuagoa denez eta, gurasoekin harreman estua daukatenez, ebaluazioa gehienbat ahozkoa, jarraia eta behaketan oinarritua da. Hala eta guztiz ere, profesionalen arteko bilera formalak astero egiten dituzte eta, urtean behin, familiei ere informe idatzi bat ematen diete (Ikus 4. eranskina).

Amaitzeko eta ordutegian sakonduz, nabarmendu beharrekoa da oso malgua dela, izan ere, familia premiazkozat jotzen dute hezkuntza etapa honetan. Ikasleak 07:30etik aurrera sartzen dira eskolan eta gosaltzen edo jolas librean aritzen dira 10:00ak arte. Sarrera momentu hori garrantzi handia daukanez, gurasoak gelaraino sartzen dira, zapatak kentzen dituzte eta lanera joan aurretik seme-alabekin batera minutu batzuk egoten dira.

Hamarretan, ordea, proiektuekin lanean hasten dira eta astean behin gutxienez, txangoa egiten dute. Ostiraletan aldiz, talde txikietan esperimentuak egitera haur eskolako igerilekura doaz. 11:30ak aldera, mahaia eta janaria prestatu eta bazkaldu egiten dute.

Bazkaldu ondoren, dena batu eta haurraren behar eta interesen arabera, ekintza ezberdinak burutzen dituzte. Batzuk, lo kuluxkak parkean egiten dituzte; beste batzuk, tailerrean edo jolasteko gelan jarduten dute; badaude proiektuarekin lanean jarraitzen dutenak; edo jolas librean aritzen direnak ere. Azkenik, egunari amaiera emateko, 14:00etatik 16:30era gurasoak haurren bila etortzen dira.

Azaldu beharrekoa da ere, astean zehar badituztela gelen arteko ekintzak. Astelehenetan, hots, bost urtekoak proiektu ezberdin bat aurrera eramateko biltzen dira, Lehen Hezkuntzara prestatuago igarotzeko asmoarekin. Asteartetan, aitzitik, lau urtekoak haur eskolako abesbatza osatzen dute. Modu honetan, Norvegiako abesti tradizionalak ikasten dituzte, hizkuntza lantzen dute, erritmo ezberdinak egiten dituzte, sormena garatzen dute, instrumentu ezberdinak ezagutzen dituzte, etab.

5. 2. Proiektuaren asmoak

Proiektuaren diseinua egiterako orduan, funtsezkoa da lortu nahi ditugun irizpideak ezartzea eta horiek asetzeko prozesua bideratzea. Hona hemen proiektu esku-hartzaile

honen bitartez garatu nahi diren asmoak:

- Norvegiako haur eskola bateko hezkuntza-praktika berritzaile eta alternatiboak ezagutu, modu eraginkorrean hedatzeko.
 - Bodøko eskolan eredutzat dituzten korrante pedagogikoak identifikatu eta horien ezaugarri nabarmenetan sakondu.
 - Eskola nordikoaren ekintza pedagogikoak sailkatu, behaketa parte-hartzailea eta jarraia oinarri hartuta.
 - Behaketaren bidez jasotako informazioa osotu, zentro nordiko horretako profesional desberdinei egindako elkarrizketekin.
 - Norvegiako zentroaren ekintza pedagogikoak modu grafikoan laburbiltzen dituen web orrialde bat eratu.
- Norvegian jasotako ekintza pedagogikoa eredu hartuta eta hezkuntza-sisteman ekarpen aberasgarria eginez, euskal eskola batetara bideratutako proposamen metodologiko berritzailea diseinatu.
 - Bodøko haur eskolatik egokitutako hezkuntza praktika alternatiboen proposamena EAEko testuinguruan inplementatu.
 - Etorkizunean proiektua garatzen jarraitzeko iradokizunak plazaratu.

5.3. Proiektua garatzeko faseak

Proiektu esku-hartzailea aurrera eramateko, kronograman nabarmendu daitekeen antzera, zazpi fase burutu dira hamar hilabetetan zehar.

PROIEKTUAREN FASEAK
1. NORVEGIAKO HEZKUNTZA PRAKTIKA ALTERNATIBOEN AZTERKETA: Behaketa zuzena, jarraia eta parte-hartzailea, eguneroko idatzia eta elkarrizketak
2. OINARRIZTAPEN TEORIKOAREN ANALISIA
3. PROIEKTUAREN ASMOEN ZEHAZTAPENA ETA GARAPENA
4. NORVEGIAKO EKINTZA PEDAGOGIKOAREN IDENTIFIKAZIOA ETA SAILKAPENA
5. EAEKO ESKOLA BATERA BIDERATUTAKO PROPOSAMEN METODOLOGIKOAREN INPLEMENTAZIO DISEINUA.
6. PROIEKTUAREN HEDAPENA: web orrialdearen sorkuntza
7. PROIEKTUAREN ONDORIO ETA IRADOKIZUNEN ERREDAKZIOA

ABUZTUA 2014						
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31
AZAROA 2014						
				1	2	
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
OTSAILA 2015						
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	
MAIATZA 2015						
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31
IRAILA 2014						
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					
ABENDUA 2014						
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				
MARTXOA 2015						
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					
URRIA 2014						
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		
URTARRILA 2015						
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	
APIRILA 2015						
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

Lehenengo fasean, Bodoko haur eskolako hezkuntza-praktika berritzaileak aztertzeko, hiru tresna nagusi erabili dira. Batetik, ekintza pedagogikoaren behaketa zuzena, jarraia eta parte-hartzailea eta, bestetik, eguneroko idatzia. Azkenik, aurreko bien informazioa osatzeko, zentroko profesionalak formalki elkarrizketatu dira.

Behaketaren kontzeptua ikertzen den testuinguruaren arabera oso aldakorra izan daitekeen arren, informazioa lortzeko helburu duen eta arreta zentzuduna eskatzen duen prozesua da. Cuadrosek (2009) dioen antzera, behaketa parte-hartzailea ikerketa kualitatiboa burutzeko estrategia bat da, informazioa lortzea eta testuinguru errealean ikerketa burutzea ahalbideratzen duena.

Proiektu honetan, behatzaileak esperientziak testuinguruan bizi ditu eta subjektuen egunerokotasunean sartu da. Hau da, datuak toki eta momentuan bertan hartu ditu egoerarekin elkarrekintzan aritu den bitartean. Bisquerrak (2004:332) behaketa mota hori parte-hartzailetzat jotzen du, “Behaketa parte-hartzaileak, bere izenak dioen antzera, ikergai den taldearen jarduerak behatzen diren aldi berean, horietan parte hartzean datza”.

Horrez gain, Norvegiako haur eskolako ekintza pedagogikoaren informazioaren bilketa egiteko, behaketa parte-hartzaile horietan jasotako datuak, *eguneroko* (Ikus 1. eranskina) idatzi batean bildu dira. Egunerokoa ebaluazio-tresna informala izan ohi

denez, pertsonala eta behatzailaren bizipenak biltzen dituenek, mekanismo irekia da. Ez dauka jarraibiderik eta behatzaileak bere barneko ahotsa jarraituz gidatzen da hura idazterako orduan. “Egunerokoaren baliorik garrantzitsuena idaztea bera da, izan ere, idazteko egiten den hausnarketa ezinbesteko horrek hausnarketa pedagogikoa dakar atxikiturik, eta horixe da lortu nahi dena”. (Bigas eta Correig, 2000:209).

Azkenik, behaketa eta eguneroko horren partaide izan ziren zentroko profesional ezberdinei *elkarrizketa formala* (Ikus 2. eranskina) egiten zaie. Proiektuan zehar, galdera irekiz osatutako hiru elkarrizketa egiten dira: bata pedagogoari, bestea irakasleari eta hirugarrena laguntzaileari. Modu honetan, Ariasek (2000) aipatzen duen antzera, *datuen triangulaketa* egin da, iturri ezberdinetatik gai berdinarekiko ikuspegi edo balorazio anitzak jaso direlarik.

Egoeraren azterketan planteatutako pentsamoldearen aldaketaren beharrari aurre egiteko, oinarritzapen teorikoaren analisiari ekin zaio. Fase honetan, Berrikuntzaren kontzeptua landu eta Norvegiako eskolan jarraitzen dituzten korrante pedagogikoak aztertu dira. Ondoren, bakoitzari buruzko informazioa jaso, analizatu eta sintetizatu delarik.

Hurrengo fasean, aldiz, proiektua diseinatu da. Fase honetan, lortu nahi diren asmoak zehaztu eta horiek lortzeko prozesua denboran zehar islatu da.

Behin hori argi izanda, behaketa, eguneroko eta elkarrizketa bidez nabarmendutako ekintza pedagogikoak identifikatu eta taula batean sailkatu dira. Esan beharrekoa da haxe dela proiektuaren mamia, baliabide honetan biltzen baita proiektuaren oinarria.

EAEko eskola batetarako proposamen metodologikoa diseinatzea izan da proiektuaren bigarren emaitza. Planteamendu berritzaile honekin egoeraren azterketan nabarmendutako hutsuneari erantzun posible bat eman nahi zaio.

Proiektuan zehar landutako informazio guztia hedatzeko eta hezkuntza komunitatearen eskura jartzeko, web orrialde publiko bat sortu da. Bereziki aipatu beharrekoa da azkenengo emaitza hau gauzatzeko argazkiek, bideoek, ahozko grabazioek, etab.-ek izan duten garrantzia.

5. 4. Proiektuaren emaitzak

Proiektuaren asmoei erantzuna eman nahian, batetik, hezkuntza praktika alternatiboak aurrera eramateko baliabidea sortu da eta, bestetik, euskal hezkuntza komunitatera bideratutako proposamena burutu da, guzti hori web orrialde batean jaso delarik.

5. 4. 1. Bodøko hezkuntza praktika alternatiboen azterketa eta sailkapena

Norvegiako haur eskolan behaketa jarraia eta parte-hartzailea egin ostean, bertan ikusitako hezkuntza-praktika berritzaile eta alternatiboak lau bloke handitan antolatu dira: *eskola irekia, naturarekiko harreman estua, malgutasuna* eta *aniztasuna*. Aipatu beharra dago EAEko Haur Hezkuntzako Curriculumari dagokionean, EHAAn 2009ko dekretuan agertzen diren hiru eremuak (*Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala, Ingurunearen ezaguera, eta Komunikazioa eta adierazpena*) aurretiaz aipaturiko lau bloke nagusi horietan islatuta agertzen direla, bai esplizituki, bai inplizituki (Ikus taula1).

Bestalde, lau bloke hauen barnean, zentroan jarraitzen diren metodologia printzipio didaktiko ezberdinak nabarmendu dira, Aiertzak et al.-ek (2004) proposatutako sailkapenak oinarri harturik.

Bodøko haur eskolan *Globalizazio edo diziplinartekotasun printzipioa* butzatzen da, izan ere, euren ikaste-irakaste prozesuetan ezagutzak ez dira analitikoki barneratzen, modu naturalean baizik. Horregatik, haurraren motibazio eta interesak ikasketaren abiapuntu eta motorra dira eta eguneroko arazo edo jakinminak proiektuen edo hezkuntza-praktiken gai zentral bilakatzen dira.

Erakunde honetan, beraz, *aktibotasun printzipioa* sustatzen da, haurra izaki aktiboatzat ulertzen da eta. Haurrari era askean ikasten eta lan egiten irakasten zaio, baita erabakiak autonomiaz hartzen ere. Umearen aktibitatea, mentala zein gorputzekoa, norberaren beharizan eta interesetatik irtetzen da, funtzionaltasunari oso lotuta dagoelarik. Hori horrela izanda, jolasa, manipulazioa, behaketa eta esperimendazioa bezalako baliabideak erabiltzen dituzte.

Pertsonen artean dauden desberdintasunak direla eta, irakaskuntzak subjektu bakoitzaren premia eta ezaugarriei egokitzeko beharra dauka. Horregatik, Bodøen ere *bakoizte-printzipioa* sustatzen dute, norberaren gaitasun potentzialak garatzeko.

Aurreko printzipioarekin oso lotura estua daukan *Sormen printzipioa* ere bultzatzen dute. Printzipio honi esker, haurrek etorkizunean eragozpenak eta gatazkak errazago konponduko dituzte, jariokortasunez, malgutasunez, orijinaltasunez eta elaborazioz. Haur eskola honetako hezkuntza praktketan, beraz, ideazioa, komunikazioa eta ingurunearen transformazioa bultzatzen dituzten ekintzak erabiltzen dituzte.

Horrez gain, Bodøko sistema metodologikoan *sozializazio edo lankidetzaren printzipioa* burutzen da. Haur eskolatik ikaslearen inguruko giza-taldean inklusioa bilatzen da, modu honetan sozializazio prozesua erraztuz. Horretarako, ikasleen arteko

elkarlana sustatzen dute, kasurako, talde-lanaren bidez, asanbladak edo korroak eginez, komunitatearen parte-hartzea sustatuz, ardura txikiak ikasleen gain jarriz, beste eskoletako ikasle taldeekin erlazioa mantenduz, ikasleen taldekatze desberdinak proposatuz, jaialdi kultural ezberdinak haur eskolan ospatuz, etab.

Afektibotasun printzipioak ere itzelezko garrantzia dauka pertsonengan. Izan ere, afektibitateak umearen garapen kognitibo, afektibo-sozial eta fisikoak baldintzatzen ditu. Bodøko haur eskolako profesionalek argi daukate umeak, konfiantzazko eta segurtasunezko giro afektibo batean, maitatuak sentitu behar direla. Euren ustetan, eskola lotura afektiboak indartzeko erakundea izan behar du.

Bestalde, Norvegian behatutako profesionalek, *Transferentzia-printzipioa jarraitzen* dute. Hau da, ikasleek aldeztatik aurretik egindako ikasketa batetik abiatzen dira, ikasketa berrian edo arazoaren ebazpenean lagunduz.

Ondorengo baliabidean (Ikus taula 1), aurretiaz azaldutako printzipio metodologikoak Bodøko eskolan burututako hezkutza-praktika alternatiboekin erlazionatu dira (1. zutabea). Horiek justifikatzeko, bakoitzaren adierazleak identifikatu (2. zutabea) eta oinarritapen teorikoko korrante edo inspirazio-iturriekin elkarlotu dira (3. zutabea).

ESKOLA IREKIA

SOZIALIZAZIO EDO LANKIDETZA PRINTZIPIOA:

1. Gurasoekiko komunikazioa lehenesten da; gurasoek inplikazio handia daukate.	Gelaraino sartzen dira, zapatak kentzen dituzte eta seme-alabekin gosaltzen eta jolasten dute.	Waldorf
	Irakasleekin egunero ahoz komunikatzen dira.	Reggio Emilia
	“Sandwich” teknika erabiltzen dute gurasoekin komunikatzerako orduan (positibo-negatibo-positibo)	Propioa
	Harrerako kortxoak (asteko plangintzarekin) eta harrerako telebista (asteazken zehar egindako argazkiekin) gurasoak informatzeko beste baliabide batzuk dira.	Reggio Emilia
2. Jende ezberdina etengabe ikustera ohituta daude eta lanbide ezberdinetako jendeekin elkarbizitzen dute.	Garbitzaileak, sukaldariak, bedela, postaria, unibertsitateko ikasleak, beste irakasle batzuk, praktikatuko ikasleak... Adibideak: Indioen eguna, Gabonetako gailera, Patioko gabonetako zuhaitza...	Reggio Emilia
3. Solidarioak dira.	Errumaniako haur bat apadrinatuta daukate.	Propioa
	Baita eskola barruan ere.	Propioa
	Adibidea: Gurasoek askotan janari gehiago jartzen diete bestekin partekatzeko ere esanez.	
4. Elkarlan handia dago komunitatearekin.	Inguruko eskolekin, unibertsitatearekin, liburutegiarekin...	Reggio Emilia
5. Publikoa da; sekreturik ez dago.	Eskola beti zabalik dago (edonori), bai fisikoki, bai ideologikoki.	Reggio Emilia

NATURAREKIKO HARREMAN ESTUA

AKTIBOTASUN PRINTZIPIOA:

1. Txangoak ikasketaren tresna dira.	Asteartero, gutxienez, egiten dituzte.	Propioa
	Edozein leku izan daiteke txangoaren helburua: polikiroldegia, basoa, baserria, parkea, unibertsitatea, liburutegia...	Reggio Emilia
	Basoan eremu bar daukate txabola batekin, sokekin, ekilibrioak egiteko materialekin, bazkaltzeko eremu batekin... modu honetan, lisua ez den lekuetatik (menditik, aldapetatik... ibiltzeko gaitasuna ikasten dute, imaginazioa garatzen dute (makil bat pistola izan daiteke, edo barita magikoa, edo suhiltzaileen mangera...))...	Waldorf Reggio Emilia (<i>ez da basoa, baina bai berdegune handia</i>)
2. Eskolako patioa ere ikaskuntzarako bidea da.	Adibideak: <ul style="list-style-type: none"> • Materiala: area, trizikloak, loreak, lokatza, hostoak, elurra, txingorra... • Espazioak: etxetxoak, parketxoak... • Burutzen dituzten hezkuntza-praktikak: suaren inguruan bazkaldu, istorioak kontatu, jolasak, barbakoak, lo kuluxkakak, samien egunaren ospakizuna,... 	Reggio Emilia Waldorf

TRANSFERENTZIA PRINTZIPIOA:

3. Birziklatzea, lekuak garbi uztea, zaborra batzea...etengabe presente daukate.	Adibideak: Puzzle zaharrarekin egindako hormairudia, Piñekin egindako gabonetako zuhaitza, etab.	Waldorf
--	--	---------

MARGUTASUNA

BAKOIZTE PRINTZIPIOA

1. Umeen erritmoa errespetatzen da.	Haur bakoitzaren behar fisiologikoak asetzen dira: jaten, lo egiten, txisa edo kaka egiten, bainatzen... behar adina denbora daude.	Pikler. Waldorf. Montessori
2. Curriculuma indibidualizatua da.	Haur bakoitzak bere helburua dauka, bat eta bakarra: Helburu pertsonalizatuak dituzte, ume bakoitzak garapen ezberdin bat duelako. Horregatik, helburu komunak oso gutxi eta oso oinarritzkoak dira.	Waldorf
3. Ez dago ordutegi finkorik.	Haurren ordutegiak familiaren egoeraren arabera dira. Adibidez, gurasoren batek ostiraletan libre badauka, haurra ez doa egun horretan eskolara. Familiarekin egotea lehenesten baita beti.	Propioa
4. Haurra da garrantzitsua; umearen segurtasuna, ongizatea eta garapen optimoa bilatzen dute.	Haurrak underwerean ibiltzen dira, galtzerdietan.	Pikler
	Hizkuntza zaintzen dute. Adibidez: “zein polita zauden soinekoarekin” eta ez “zein soineko polita daramazun”. Lehenengoan, haurren kalitateak nabarmen dira, bestean, berriz, soinekoarenak.	Acourier
	Azpitaldeak egiten dira askotan. Adibidez: Lehen Hezkuntzara pasatuko diren haurrak prestatzeko, lo-kuluxkakak egiteko, proiektuak burutzeko, etab.	High/Scope Reggio Emilia
5. Irakasleen arreta 100%koa da	Irakasleak umeekin batera bazkaltzen dute.	Waldorf
	Eurekin jolastu eta asko hitz egiten dute.	Pikler
	Behaketa irakaslearen funtsezko mekanismoa da.	Acourier. Pikler. Montessori
	Hezitzaileak astero biltzen dira haurren jarraipenari buruz hitz egiteko: Ebaluazioa jarraia da, egunerokoa erabiltzen dute tresna gisa; baina gurasoekiko komunikazioa batez ere ahozkoa da.	Reggio Emilia

AKTIBOTASUN PRINTZIPIOA

6. Askatasuna oso presente dago.	Jolas librearen ordutegiaren %80a hartzen du.	Pikler
	Haurrek ez dute trenik egiten: hegazkin edo ferrian doaz (hirunaka, launaka) nahi duten moduan eta eskutik helduta.	Propioa
7. Haurren motibazioa eta autonomia da abiapuntua.	Umeen interes eta beharretatik (funtzionalitasunetik) sortzen da ikaskuntza eta jolasa da metodologiaren ardatza.	Reggio Emilia
	Adibideak: Arrainen proiektua, Trafikoaren proiektua, Gabonetako zuhaitza eraikitzea, igerilekuan urarekin esperimentuak egitea, ardura bat izatea (arraina, errumaniako haurra...). platerretan/edalontzietan euren izena eguneroko bilatzea, bakoitzak jantzi, bere janaria prestatu (pumcakeak, salmoia, gailetak, sandwichak...), etab.	Acourier Waldorf
	Proiektuak aldatzeketengabe aldatzeko jarrera baikorra daukate.	Reggio Emilia. Waldorf
8. Aldaketari irekiak daude.	Proiektuak aldatzeketengabe aldatzeko jarrera baikorra daukate.	Reggio Emilia. Waldorf

AFEKTIBOTASUN PRINTZIPIOA

9. Emozioetan lan egiten dute.	Haurren zoriontasuna premiazkoa da. Adibidez, Halloweeneko jarduerak	Acourier. Waldorf
--------------------------------	--	-------------------

10. Harreman afektiboak pisu handia dauka.	Haurrei etengabe maitasuna eskaintzen zaie (musuak, besarkadak, irribarreak, jolas indibidualak, jantzi-erantzi momentuak, jateko momentuak, bainatzekoak...). Beharrezkoa ikusten dute arreta indibidualizatu hori ahal duten guztietan	Pikler. Waldorf. Montessori
11. "Hitz egitea"ren pedagogian sinesten dute.	Ez dago zigorrik, ondorioak baizik.	Propioa
	Stop (haurraren izena esan beharrean)	Propioa
	Haurrekin hitz egiten dute, gauzak asko azaltzen dizkiete. Zergatiak ematen dituzte.	Acouturier. Reggio Emilia

ANIZTASUNA

SOZIALIZAZIO EDO LANKIDETZA PRINTZIPIOA

1. Nazionalitate ezberdinetako umeak dihardute gelan.	Besteak beste, Sri Lanka, Finlandia, Norvegia eta Marokokoak.	Reggio Emilia
2. Adin desberdinetako haurrak (2tik 6ra) gela berean jarduten dute egunero		Waldorf
3. Taldekatzeak ugariak dira.	Eskola osokoa (Gabonkatak, gabonetako bazkaria), gelen artekoa (Jolas librean zehar), gela osokoa (Liburutegiko liburuak hautatu, poesia bat irakurri, txontxongiloen ipuina entzun, korroan hitz egin), talde txikiak (Paperkakeak apaindu, igerilekura joatea), binaka (Gabonetako aingerutxoak egitea), banaka (Lo-kuluxakak, curriculum indibidualizatua), etab.	High/Scope Reggio Emilia

SORMEN PRINTZIPIOA

4. Haurren eskura dauden material neutroak eta anitzak dituzte.	Jolas sinbolikorako eta sormena lantzeko aukera ematen dituzten materialak dira: Legoak, kultura guztietako panpinak, oihalak, liburuak, puzzleak, egurrezko jostailuak, lodiera ezberdinetako margoak, paperak, tenperak, etab.	Reggio Emilia. Acouturier
5. Espazio anitzak ditu.	Argitsua da, lehio handiak ditu. Arte tailerra daukate (taldetxikietan joan 2-5)	Reggio Emilia
	Haurren produkzio gutxi ikus daitezke, prozesua emaitza baino garrantzitasagoa delako.	
	Kanpoaldean berdegune handia dago.	Waldorf. Reggio Emilia
	Igerilekua, Gelako sukaldea, Jolasteko gela, Aldagelak, etab.	Propioa

GLOBALIZAZIO EDO DIZIPLINARTEKOTASUN PRINTZIPIOA

6. Ikasketa globala da.	Iraupen ezberdineko proiektuetan lan egiten dute. Horien bidez esparru bat baino gehiago lantzen dute.	Reggio Emilia
-------------------------	--	---------------

TRANSFERENTZIA PRINTZIPIOA

7. Gelan formakuntza ezberdineko profesionalak dihardute lanean.	Hezitzailea, pedagogoa eta laguntzailea.	Reggio Emilia
--	--	---------------

Taula 1: Haur eskola nordikoaren hezkuntza-praktika aternatiboen sailkapena.

5. 4. 2. Euskal eskola batera bideratutako proposamen metodologikoa

EAEko eskola batean aplikatzeko proposamen metodologiko bat diseinatzeko eta inplementatzeko asmotan, Bizkaiko eskola bateko lau urteko gela hautatu zen esperientzia piloto gisa.

EAEko ESKOLA JAKIN BATEN FUNTSEZKO BALIOAK:	NORVEGIAKO ESKOLAKO PRINTZIPIOAK
<i>Horreum Fundazioak (2004ko urtarrila) balioei buruz egindako azterlanaren arabera:</i>	
1. HIZKUNTZA GAITASUNA: Ikasleen gaitasun eleanitza.	∅
2. KALITATEA: Hezkuntza-komunitate osoarentzako izango den hobekuntza iraunkorra.	Transferentzia.
3. EUSKALDUNTZEA: Kultur eta balio historikoen ezagutza, onarpena eta transmisio bizia.	Transferentzia.
4. OSOKO GARAPENA: Adimen, gizarte, moral, emozio eta gorputzaren arlokoa.	Bakoitze eta globalizazio.
5. TALDEKO LANA: Oinarrizko baliabidetzat daukagu irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.	Sozializazio.
6. ELKARBIZITZA: Giro onak harmonia bultzatu eta elkarreragina eta enpatia sortzen ditu.	Sozializazio.
7. KONPROMISOA: Modu serio eta arduratsuan esku hartzea.	Aktibotasun.
8. OIHARTZUNA ATZERRIAN: Atzerriko erakundeekin harremanak izatea eta trukeak egitea.	Sozializazio.
9. TEKNOLOGI ARLOKO TREBAKUNTZA: Teknologia berrietan trebatutako ikasleak.	∅
10. KOOPERATIBISMOA: Elkarrekin autonomiaduna da, borondatez elkartu diren pertsonen osatua.	∅
∅	Sormen.
∅	Afektibotasun.

Taula 2: Norvegiako haur eskolaren eta ikastolaren funtsezko balioak.

Aurreko taulan ikus daitekeenez, euskal eskola honek Bodøko haur eskolak baino hizkuntzarekiko konpromesu handiagoa dauka eta, era berean, erakunde nordikoak askatasunarekin eta aktibotasunarekin Bizkaikoak baino estutasun handiagoa dauka. Beharbada, alde horrek herrialde bakoitzak bizi duen egoera politikoarekin eta gizartearen egoerarekin lotura zuzena dauka. Hala eta guztiz ere, zenbait hezkuntza-praktika EAEko eskola honetan inplementatu daitezkeela pentsa daiteke, ezberdintasun batzuk egoda ere, beren-beregian, antzeko metodologia-printzipioak jarraitzen dituzte eta.

Hori horrela izanik, Bizkaiko itunpeko eskola honetako lau urteko gela jakin baterako proposamen bat diseinatu da Bodøko hezkuntza praktika berritzaileak eredutzat hartuta (Ikus 3. eranskina). Planteamendu alternatibo honen bidez, egoeraren azterketan azaldutako hutsuneari erantzuna eman nahi zaio, hau da, hain beharrezkoa

den pentsamenduaren aldaketan eragin nahi du.

Hala ere, nabarmendu behar da eranskinetan islatzen diren proposamenak ereduak baino ez direla, Norvegiako eskolako ekintza pedagogikoa oinarri dituztenak. Hala ere, benetan burutu beharreko planteamenduak haur euskaldunen momentuko interes eta beharretan oinarritzen dira. Horregatik, haur bakoitzaren helburuak, proiektuen gaiak eta iraupena, proposatutako esku-hartzeak, erabiltzen diren baliabide eta taldekatze motak oso malguak eta aldakorak izan behar dira.

5. 4. 3. Web orrialdea: Norberriketan

Aurreko atalean sailkatutako ekintza pedagogiko guztiak era grafikoan biltzeko, sarean espazio publiko bat sortu da, “Norberriketan”. Web orrialde honen bidez, Eskandinabiako haur eskolan bizi izandako esperientzia aberasgarria jaso eta bertan ikusitako hezkuntza-praktika berritzaile alternatiboak modu azkar, erakargarri eta gaurkotu batean antolatu dira. Hori horrela izanik, tresna honen bidez, egindako lan guztia hezkuntza komunitatera hedatu da. Hau da, ideia eta proposamen alternatibo arrakastatsuak eskura jarri dira, hezkuntza sistema aberastuko delakoan. Besterik gabe, hona hemen *Norberriketan*, Norvegiako berrikuntzez berriketan aritzen den baliabidea: <https://norberriketan.wordpress.com>

6. Proiektuaren ebaluazioa

Proiektua gauzatu ondoren, burututako prozesuari buruzko hausnarketa sakona egitea ezinbestekoa da, izandako lorpenak eta mugak aintzat hartuta. Horrez gain, sorturiko baliabideen oraingo eta geroko baliozkotasuna azpimarratzea komeni da, etorkizunean proiektua zabaltzeko zenbait iradokizun aipatuz.

6.1. Ondorioak

Norvegiako haur-eskola bateko hezkuntza-praktika alternatiboak bost hilabetez behatu eta sakonki aztertu ondoren, euren ekintza pedagogikoa lau bloke handitan sailkatzen dela ikusi da: *aniztasuna, eskola irekia, naturarekiko harreman estua eta malgutasuna*. Beharbada, bloke horiek Bodøko zentroaren identitate-ezaugarri aipagarrienak dira.

Bertan erabiltzen dituzten esku-hartze batzuk propioak diren arren, gehienak korrante pedagogiko ezagun batean daukate oinarria. Esate baterako, *Reggio Emilia* eta *Waldorf* pedagogiak euren inspirazio-eredurik argienak izan daitezke. Bestalde, EAEko

hezkuntza sisteman bezalaxe, euren ikas-irakaskuntza jarduerak printzipio metodologikoetan antola daitezke. Hona hemen Bodøko haur eskola horretan nagusi ziren printzipioak: *aktibotasun printzipioa*, *afektibotasun printzipioa*, *bakoizte printzipioa*, *globalizazio edo diziplinartekotasun printzipioa*, *sormen printzipioa*, *sozializazio edo lankidetzaren printzipioa* eta *transferentzia printzipioa*.

Egindako lan guztia modu grafikoan laburbiltzeko eta gizartean modu azkar eta eraginkorrean hedatzeko, “Norberriketan” izeneko web orrialdea sortu da. Bertan, aurretiaz azaldutako hezkuntza-praktiken sailkapen argia egiten da, argazkiak, bideoak, elkarrizketak etab. ardatz izanik.

Proiektuaren bigarren asmoari dagokionez, euskal eskoletara bideratutako proposamen metodologikoa diseinatu da, ez ordea inplementatu. Hezkuntza sistema aberasteko gizartera egokitzea eta aldaketara zabalik egotea ezinbesteko da, baina, hautatutako zentro horretan proiektu honen proposamenari ezetz biribila eman zioten. Zentroko zuzendaritzaren esanetan, ezin da gela bakarrean horrelako planteamendu bat burutu eta gela guztietan martxan jartzeko ez dago profesional nahikorik. Gainera, horrelako metodologia batekin ezin daiteke “denbora galdu”, gaur egunean erabiltzen duten metodologiako programaziora ere heltzen ez baitira.

6.2. Etorkizunerako iradokizunak

Proposamenari emandako ezetza onartu eta Bodøko haur-eskola horren antzeko metodo berritzaileekin hasi diren beste euskal eskola batzuetan indarra hartu behar da. Besteak beste, *Arizmendi* ikastolak burutzen duen “konfidantzazko pedagogia”; Iruñeko *Egungo* haur eskola, Reggio Emilia metodologia eredu duena; Gasteizko *Parsifal*, Waldorf pedagogiaren jarraitzaileak direnak, etab. Esperientzia guzti hauek horrelako proiektu piloto batetik hasi ziren eta, gaur egunean, erreferente bilakatu dira euskal hezkuntza sisteman.

Hori horrela izanik, proiektu honeri baliozkortasuna eta jarraipena ematea izango da etorkizunerako zereginik aipagarriena. Horretarako, aproposa izango litzateke orain arte burututako baliabidea euskal eskola batean martxan jarri ahal izatea. Horrez gain, eraturako web orrialdean esperientzia berritzaile horren berri komunitateari eman behar zaio. Izan ere, proiektua aurrera eramatea bezain garrantzitsua da, lortutako ondorioak eta hausnarketak gizartean hedatzea eta hezkuntza komunitatearen eskura jartzea. Gainera, momentu honetan nahiko idilikoa iruditu arren, ondo legoke oinarri berberak dituen Lehen Hezkuntzarako proposamen metodologiko bat diseinatzea eta

inplementatzea, horrelako ekintza pedagogikoa ez baita soilik Haur Hezkuntzara mugatzen.

Hala eta guztiz ere, argi eduki behar da Bodø biziako esperiantziak ikasteko balio duela, baina hango eredia ezin dela %100ean errepikatu. Norvegia oso lurralde ezberdina da eta bere ohitura, kultura, ekonomia, politika, gizartea eta abarrek ez daukate zer ikusirik EAEn daukagun sistemarekin. Beraz, ideiak hartu eta Bodø gure erreferente bilakatu badaiteke ere, beti norbere testuingurura egokitu beharko litzateke. Hori horrela izanik, eredia errepikatu baino gehiago, galdera hauek egin beharko genituzke: Zer motatako eskola nahi dugu? Zer irakatsi nahi dugu? Nolako gizartea nahi dugu etorkizunean? Horiek baitira beraien abiapuntua. Erantzun horietatik sortu da dena.

7. Erreferentzia bibliografikoak

- Acouturier, B. (1994ko apirila). *El educador y la ayuda educativa*. Lilleko hitzaldia. Lille, Frantzia. Argitaratua: La Hamaca. (1999). *La acción como transformación*. 10. zbkia: Fundari.
- Aiertza, M., Bilbao, M. B., Elizalde, L. M., Etxague, X., Garagorri, X., Huegun, A., ... Oihartzabal, L. (2004). *Didaktika Orokorra*. Donostia, Espainia: Erein.
- Aguerrondo, M. (2005). *Los Grandes Pensadores* (pp.55). Buenos Aires, Argentina: Papers Editores.
- Arias, M. (2000). Triangulación metodológica: sus principios, alcances y limitaciones. *Enfermera*, 18(1), 37-57.
- Bigas, M., & Correig, M. (koord.) (2000): *Didáctica de la lengua en la educación infantil* (pp.203-212). Bartzelona, Espainia: Síntesis.
- Bisquerra, R. (2004). *Metodología de la investigación educativa* (pp.332). Madril, Espainia: La Muralla.
- Cañal de León, P. (2002). *La innovación educativa*. Madril, Espainia: AKAL.
- Carlgren, F. (2004). *Pedagogía Waldorf, una educación hacia la libertad*. Madril, Espainia: Antroposófica.
- Cuadros, D. (2009). *Investigación cualitativa en el contexto natural: La observación participante*. Bartzelona, Espainia: UIC.
- Edwards, C., Gandini, L., & Forman, G. (1993). *The hundred languages of children: the Reggio Emilia Approach to early childhood education*. Norwood, New Jersey: Ablex. 2015-03-16an berreskuratua: <http://reggioalliance.org/resources/free-resources/>
- EHAA. (2009). *Hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa saila, 12/2009 dekretua*. 2015-01-10an berreskuratua: <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2009/01/0900469a.pdf>
- Garrido, M., & Grau, S. (2001). *Curriculum cognitivo para educación infantil* (pp. 13). Alacant, Espainia: Ecu.
- Hik Hasi, (2004ko urtarrila). *Bernard Acouturier*. 84.zbkia. Donostia, Espainia: Xangorin S.L.
- Hik Hasi. (2006ko apirila). *Waldorf eskolak. Haurraren garapen naturala*. 107.zbkia. . Donostia, Espainia: Xangorin S.L.
- Hik Hasi. (2007ko urria). *Reggio Emilia. 0-6 urte bitarteko udal haur hezkuntza*. 19.

- monografikoa*. Donostia, Espainia: Xangorin S.L.
- Imbernon, F. (1996). *En busca del discurso perdido* (pp.64). Buenos aires, Argentina: Magisterio del Río de la Plata.
- Kálló, É., & Balog, G. (2013). *Los orígenes del juego libre*. Budapest, Hungaria: Magyarországi Pikler-Lóczy Társaság.
- OECD. (1999). *Early Childhood Education and Care Policy in Norway*. 2015-04-12an berreskuratua: <http://www.oecd.org/norway/2534885.pdf>
- Pascual, R. (1998). *La gestión educativa ante la innovación y el cambio* (pp.86). Madril, Espainia: Narcea.
- Reggio Emiliako haur eskolak. (Ed.). (1995). *La inteligencia se construye usándola*. Madril, Espainia: Ediciones Morata S.L.
- Standing, E. M. (1976). *La revolución Montessori en la educación*. Madril, Espainia: Siglo Veintiuno.
- Tardos, A. (2010). Introducing the Picklerian developmental approach: History and principles. *The Signal*, 18(2-3). 2015-03-08an berreskuratua: http://www.waimh.org/files/Signal/Signal3-4_2010.pdf
- The High/Scope Curriculum series. (ed.). (1992). *Setting up the Learning Environment*. Ypsilanti, Estatu Batuak: High/Scope Press.
- Van Dijk, S. (2013ko otsaila-martxoa). Filosofía para niños: La autonomía del educando como logro educativo. *Reflexiones marginales*. 3 (13). 2015-05-06an berreskuratua: <http://reflexionesmarginales.com/3.0/17-la-autonomia-del-educando-como-logro-educativo/>
- Visit Bodø (2015). *Bodø. Guide 2015*. Bodø, Norvegia: Stibo Graphic A/S. 2015-03-27 an berreskuratua: <http://www.visitbodo.com/en/Brochures->